

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

551/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea tokiko erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzen lerroa

Europako zuzentzarauek energia berriztagarrien komunitateen definizioa jasotzen dute, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan jasotzen den bezala. Zuzentzarauek horren arabera, figura horren helburua herritarrek eta tokiko agintaritzek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea da; horri esker, tokian-tokian energia horiek hobeto onartuko dituzte eta, gainera, herritarrek gehiago parte hartuko dute trantsizio energetikoan.

Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen helburuetako bat da energia sortzen duten iturriak deszentralizatzea eta landa ingurunea energiaz hornitzeko instalazio txikiak bultzatzea, ingurumena eta lurraldea zaintzearekin eta mantentzearekin bateragarriak direnak. Esparru estrategiko horretan, energia ekoizpeneko teknologia berriztagarrien inklusioa maximizatuko duen sorkuntza parke orekatu bati eusteko, dirulaguntzen programa honek Arabako ekonomia deskarbonizatu bat lortzen lagundu nahi du.

Bestalde, pobrezia energetikoa honela definitzen da: diru sarrera nahikorik ez izateagatik energia hornidurako oinarritzko premiak ase ezin diren etxekoek unitateen egoera. Horrela, programa honen beste helburuetako bat energia pobrezia murrizten laguntzea da, diru sarrera txikiak dituzten pertsonak energia komunitateetan sartuz.

Horrela, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 14ko 24/2026 Foru Dekretuaren bidez, toki erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzeke dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

Oinarriak idazteko, kontuan hartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan kontuan hartu zen euskararen erabilaren faktorea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Toki entitateek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzeke dirulaguntzak lehia askearen araubidean emateko 2026rako deialdia onartzea.

Deialdia espedienteari lotuta dago eta erabaki honen I. eranskinean jasotzen da.

Deialdi honetan Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 14ko 24/2026 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileak aplikatuko dira.

Bigarrenena. Dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura emango dira: 200.000,00 euro "10202. G/414100/76800001 Energia komunitateen programa. Toki erakundeak" partidaren kontura eta 100.000,00 euro "10202. G/414100/78000105 Energia komunitateen programa" partidaren kontura, biak ere Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontukoak.

Hirugarrenena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrari baimena ematen zaio deialdi bakoitza garatzeko egokitzat jotzen diren ebazpenak emateko.

Laugarrenena. Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea erabaki honen II. eranskineko informazioaren arabera.

Bosgarrenena. Foru erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrenena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari administrazio egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete pasatu baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

I. ERANSKINA

2026rako deialdia dirulaguntzak emateko, lehia askearen araubidean, toki erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzeke

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen oinarri orokorrak Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 14ko 24/2026 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren (2026ko uztailaren 22ko ALHAO, 83. zenbakia).

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu kredituen kontura, toki erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzak emateko bete behar diren betekizunak, betebeharrak eta prozedura ezartzea.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, eta, beraz, finantzatu ahal izango dira, komunitate energetiko batean sartzearen ondorioz onuradunek ordaintzen dituzten gastuak, entitate horren inbertsioaren eraginaren ondorioz.

2. Onuradunen betekizunak

Honako hauek izan daitezke onuradunak:

a) 500 biztanletik beherako herriguneek osatutako Arabako kontzejuak.

b) Araban benetan bizi diren pertsona fisikoak, errentaren gehieneko irizpide hauek betetzen badituzte (zerga oinarria), bizikidetza unitateko kide konputagarrien arabera:

1	2	3	4	5	6	7 EDO GEHIAGO
18.000,00 euro	19.800,00 euro	21.780,00 euro	23.950,00 euro	26.350,00 euro	29.000,00 euro	31.800,00 euro

Bizikidetza unitatetzat hartzen da egonkortasun bokazioa duen etxebizitza batean ohiko izaeraz eta iraunkorki bizi eta gozatzen duten pertsonen multzoa, baldin eta eskaera egiten den unean bertan errolatuta badaude, horien guztien arteko harremana edozein dela ere, eta pertsona bera ezin bada bi bizikidetza unitate desberdinetako kide izan.

2025eko ekitaldiko errenta hartuko da kontuan.

Ondorioz, onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden kontzejuak eta pertsona fisikoak edo oinarri arautzaileetan eta deialdi honetan ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ezin izango dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluari aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategia onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan daudenak ere.

3. Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdiko dirulaguntzen programarako gehieneko hornidura 300.000,00 eurokoa da; horietatik 200.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontuko "10202. G/414100/76800001 Energia komunitateen programa. Toki erakundeak" partidaren kontura izango da eta 100.000,00 euro "10202. G/414100/768000105 Energia komunitateen programa" partidaren kontura, biak ere Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontukoak.

Zenbateko horietatik, 200.000,00 euro Arabako kontzejuetara bideratuko dira hasiera batean, eta 100.000,00 euro pertsona fisikoetara.

Deialdiko tarte bakoitzeko soberakinak beste tartearen emakidetarako erabili ahal izango dira, tarte horretan eskaera babesgarriak badaude.

Eskaera bakoitzeko emandako gehieneko dirulaguntza ezin izango da 2.000,00 eurotik gorakoa izan pertsona fisikoen kasuan, eta 5.000,00 eurotik gorakoa kontzejuen kasuan. Kasu batean zein bestean, eskatutako eta justifikatutako gastuaren muga izango da zenbatekoa.

4. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da. Eskaera bakarra hartuko da aintzat helbide bakoitzeko.

Eskaerak aurkezteko epea aurrekontu esleipena agortu arte egongo da irekita, edo hala gertatzen ez bada 2026ko urriaren 15ko 23:59ra arte. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, web orri honetan argitaratuko da: www.araba.eus.

Horrelako laguntzak jaso nahi dituzten pertsona fisikoen eskaeran, egin beharreko jarduketaren kontzeptua agertu beharko da, bai eta kostu ekonomikoaren aurrekontu xehatua ere. 2026ko urtarilaren 1etik aurrera egindako komunitate energetikoetarako atxikipenentarako eskatu ahal izango dira.

Eskaerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

— Egoitza elektronikoen bidez eskura daitekeen izapide espezifikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus>).

— Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorra.

— Vitoria-Gasteizko, Laguardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroan.

— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek daude behartuta aurkezpen telematikoa egitera: Arabako kontzejuak, elkargo bateko kide izan beharra eskatzen duen jarduera profesional batean dihardutenak eta jarduera horretan egiten dituzten izapideentarako, eta Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak.

Baldin eta aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Oreken zuzendaritzak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskaera, adituz atzera egin dutela beren eskaeran.

Batera zein bestera, deialdian eta oinarri arautzaileetan eskatzen diren agiri guztiak jasotzen diren eguna hartuko da eskaeraren aurkezpen eguntzat.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Prozeduraren instrukzioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Lurralde Oreken eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuak du espedientearen instrukzioa egiteko eskumena.

2. Laguntzak jaso ahal izateko, nahitaezkoa izango da agiri hauek aurkeztea edo administrazioak horiek lortzearen kontra ez egotea:

a) Dirulaguntza honen administrazio izapidea egiteko, Arabako Foru Aldundiak behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden interesdunen datuen inguruan, bai eta behar diren gainerako guztiak ere. Hori dela eta, dirulaguntzen eskatzaileei ez zaizkie eskatuko administrazioek elkarri eman ahal dizkieten datuak, baldin eta interesdunak

datuak erabiltzearen aurka egiten EZ badu; interesdunak aurka eginez gero, hark aurkeztu beharko ditu behar diren datuak edo agiriak. Administrazio publikoek datuak elkarri emateko oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen denaren arabera, herritarrek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoek egindako agiririk, jatorrizko agiririk, aplikatzen den araudian eskatzen ez den daturik edo dokumenturik edo interesdunak lehenago administrazioaren bati aurkeztutakorik. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Pertsona fisiko edo juridiko pribatuen kasuan, datu hauek bilduko dira elkarreragingarritasunez, interesdunak aurka egiten ez badu:

- Eskatzailearen NANA.
- Bizikidetzaren unitatea osatzen duten gainerako pertsonen NANA.
- Eskatzaileari buruzko ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu direla egiaztatzen duena.
- Bizikidetzaren unitatea osatzen duten gainontzeko pertsonen buruzko ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu direla egiaztatzen duena.
- Eskatzaileari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena, norberaren konturako jarduerak egiten baditu.
- Bizikidetzaren unitatea osatzen duten gainontzeko pertsonen buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duena, norberaren konturako jarduerak egiten badituzte.
- Eskatzailearen errolda ziurtagiria, indibiduala eta familiarra.
- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren likidazioa, eskatzailearena eta bizikidetzaren unitateko gainerako kideena.

b) Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Eskaera ereduak, behar bezala beteta.
 - Dagokion jabetza erregistroko ohar soila edo eskritura publikoaren fotokopia, laguntzen xede diren etxebizitzaren jabetza eskubidea, gozamen eskubidea edo beste edozein luperketa titulua egiaztatzen duena. Alokairuaren kasuan, indarrean dagoen kontratua aurkeztuko da.
 - Atxikitzearen aurrekontua.
 - Komunitate energetikoak emandako dokumentua, eskatzailearen aurreonarpenari buruzkoa. Aurreonartze baldintza bakarra onuradunak komunitate energetikora sartzeko kopurua ordaintzea izango da.
 - Hirugarrenen alta egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/hasi/izapideak/fitxa/modificacion-terceros>), edo kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, dagokion finantza erakundeak modu frogagarrian emana.
- Eskaera aurkezteko foru egoitza elektronikoan horretarako gaitutako izapide elektronikoa erabiltzen duten eskaerak nahitaez bete beharko dute hirugarrenen alta egoitza elektronikoaren bidez.
- Ordezkaritza baten bidez jardunez gero, ordezkariak baimentzeko agiria aurkeztu beharko da, deialdi honetan ordezkariaren izenean esku hartzeko gaitutako duena ordezkaria. Kasu horretan, laguntzak eskatzen dituen pertsonaren ordezkariak, eskatzaileak berak eta, hala badagokio, haren ezkontideak sinatu beharko dute eskaera fisikoa.

• Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek edo juridikoek beharrezkotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

c) Kobratzeko eskubidearen lagapena eginez gero, komunitate energetikoak honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

• Hirugarrenen alta egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/hasi/izapi-deak/fitxa/modificacion-terceros>), edo kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, dagokion finantza erakundeak modu frogagarrian emana.

6. Deialdia ebaztea

1. Eskaerak aurkeztutako hurrenkeraren arabera esleituko dira dirulaguntzak, harik eta deialdiaren saldoa agortu arte.

2. Ez da izango entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskaiztaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Instrukzio organoak, eskaera bakoitzarekin lotutako izapide guztiak bete ondoren, emakida proposamenari buruzko behar bezala arrazoitutako txostenak idatziko ditu, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dizkio. Eskaera onartzeko edo ukatzeko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duen Legeak 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa); horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

4. Ebazpenean, aldekoa bada, honako hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean egin ez izanaren ondorioak.

5. Bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. apartatuaren b) letran xedatutakoarekin, prozeduraren ebazpenak ALHAOn argitaratuko dira eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

6. Pertsona fisiko onuradunen batek uko egiten badio (uko hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, emakida jakinarazten denetik aurrera), dirulaguntza hurrengo eskaiztaileei eman ahal izango zaie, aurretik adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraituz, deialdiari azkenean esleitutako diru kopuruaren mugaraino.

7. Finantzatutako jarduerak gauzatzeko epea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa 2026ko abenduaren 15a baino lehen gauzatu beharko da, hau da, atxikipena data horretarako egin beharko da beranduenez.

8. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Ordainketak izendunak izango dira onuradunaren alde, onuraduna pertsona fisikoa zein konzejua izan. Hala ere, onuradunak kobratzeko eskubidearen lagapena egin ahal izango du komunitate energetikoaren alde, eta hori jasota geratuko da aurkezten den eskabidean.

Dirulaguntzak ebazpena ematearekin batera ordainduko dira, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da onuradunak aurreonarpena entregatzea, bosgarren oinarrian xedatu den bezala.

Dirulaguntzaren justifikatzeko, azken justifikazio kontua 2026ko urtarrilaren 31n aurkeztu behar da, beranduenez, eta dirulaguntzaren xede den zerbitzu emate osoari buruzkoa izan behar da. Hauek dira aurkeztu behar diren agiriak:

- 1) Onuradunaren atxikipen ziurtagiria, komunitate energetikoak emana.
- 2) Fakturak edo gastuaren eta ordainketaren egiaztagiriak.
- 3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edota dirulaguntzen xehetasuna; zenbatekoa eta jatorria adierazi behar dira.
- 4) Aplikatu ez diren soberakinik izanez gero, itzulketaren ordainketa gutuna, baita haietatik eratorritako interesena ere.

9. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek deialdi honetan esleitu zaizkien dirulaguntzak galdu ahal izango dituzte, aldez aurretik espediente hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

10. Bateragarritasunaren araubidea

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste laguntza, dirulaguntza edo diru sarrera batzuekin, onuradunak egindako gastuaren gainfinantzaketaren mugaraino.

11. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

12. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

II. ERANSKINA

Funtzio-Arloa: 1591

Área funcional: 1591

Dirulaguntza lerroa: Energia komunitateen programa	Línea de Subvención: Programa Comunidades Energéticas
Ardatz estrategikoa: Araba orekatua, polizentrikoa eta anitza	Eje estratégico: Álava Equilibrada, Policéntrica y Diversa
Saila: Lurralde Oreaka eta Lurralde Antolamendua	Departamento: Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio
Aurrekontu partida: 10202 G/414100/76800001 Energia komunitateen programa. Toki erakundeak 10202 G/414100/78000105 Energia komunitateen programa	Partida presupuestaria: 10202 G/414100/76800001 Programa Comunidades Energéticas. Entidades Locales 10202 G/414100/78000105 Programa Comunidades Energéticas

2026	2027	2028	GUZTIRA / TOTAL
300.000,00	0,00	0,00	300.000,00

Dirulaguntzaren xedea: Toki erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzak emateko bete behar diren betekizunak, betebeharrak eta prozedura ezartzea	Objeto de Subvención: Establecer los requisitos, obligaciones y procedimiento para el otorgamiento de subvenciones para financiar la adhesión a comunidades energéticas por parte de entidades locales y personas físicas
Onuraduna: — 500 biztanletik beherako herriguneek osatutako Arabako kontzejuak. — Araban benetan bizi diren pertsona fisikoek deialdian ezartzen diren errentaren gehieneko irizpideak betetzen badituzte (zerga oinarria)	Persona beneficiaria: — Los concejos de Álava para núcleos de población menores de 500 habitantes — Las personas físicas que residan efectivamente en Álava, y que cumplan con los criterios máximos de renta (base imponible) recogidos en la convocatoria
Emateko prozedura: Lehia askea	Procedimiento de concesión: Libre concurrencia
Dirulaguntzaren oinarrizko lerroak: Komunitate energetiko batean sartzearen ondorioz onuradunek ordaintzen dituzten gastuak, entitate horren inbertsioaren eraginaren ondorioz	Líneas básicas de la subvención: Gastos que sean sufragados por las personas beneficiarias con motivo de la entrada en una comunidad energética, derivados de la repercusión de la inversión por parte de esta última entidad
Baterako finantzaketa: Ez dago	Cofinanciación: No existe
Jarraipen prozedura eta adierazleak: 1. Programari atxikitako familia kalteberen kopurua 2. Programari atxikitako toki-erakundearen kopurua	Régimen de seguimiento e indicadores: 1. Número de familias vulnerables acogidas al programa 2. Número de entidades locales acogidas al programa